

1. Soziolinguistikaren eta hizkuntza politika eta plangintzaren oinarriak

1. jarduera: aurre-ezagutzak

Antolaketa: lau laguneko taldeak.

Idatziz erantzun galdera hauek eta irakasleari eman, taldekide guztien izen-abizenak jarrita:

1. Soziolinguistika zer den eta zein aztergai dituen idatzi. Saiatu ahalik eta definizio zehatzena eta ahalik eta aztergai gehien idazten (5 minutu).

2. Graduan zehar pilatu duzuen eskarmentua gogoan hartua, nola kokatuko zenukete soziolinguistika hizkuntzalaritzaren beste iker-alorren ondoan, edo, ze zerikusi dauka hizkuntzalaritzako beste iker-arlo batzuekin? Erantzuteko, beste iker-arloen zerrenda luze xamar bat egin aurrena (10 minutu).

3. Ikasgaiaren izenburua kontuan hartuta (Euskararen soziolinguistika, plangintza eta arautzea):
 - a) Zer ote dira “plangintza” eta “arautzea”?
 - b) Zein lotura izan ditzakete izenburuko hiru osagaiek elkarren artean?(10 minutu).